

# BERRIGARA

*Derrigorrezko  
Bigarren Hezkuntza*

22. zenbakia JARDUN Elkartea, Bergara 1996, otsailak 9



**16 urte arte  
eskolara**

**Zure jaunartze argazkietarako**

## Kiñu

TXANDA HAR EZAZU

Barrenkale, 35 ☎ 76 58 05



# SAN MARTIN

Boni Laskurain, 25

Telefonoa: 76 21 46

## ATE IREKIAK

**OTSAILAK 10  
ARRATSALDEKO  
4etatik 8etara**

**ETORRI ETA  
BARRUTIK  
EZAGUTU**

**D-B  
EREDUAK  
DOAN**



**BERGARAKO HEZKUNTZA PUBLIKOA**



## BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA  
20570 Bergara  
☎ 76 03 97 • Faxes: 76 08 19

**Argitaratzailea:**

JARDUN Elkarte.  
Masterreka, 13 Bergara.  
Tfnoa eta Faxes: 76 08 19

**Zuzendaria:**

Eneko Azkarate

**Erredakzioa:**

Eduardo Mendibil  
Mikel Elkoroberezibar  
Jone Larrañaga

**Maketazioa:**

Eneko Azkarate

**Publizitatea:**

Alex Azkarate

**Harpidetzak:**

Gorka Elortza

**Testuen zuzenketak:**

Estepan Plazaola  
Maripi Laskurain  
Alex Labaien

**Erredakzio kontseilua:**

Gorka Elortza  
Miguel Angel Elkoroberezibar  
Alex Labaien

**Komikiak:**

Bittor Rodríguez  
Gorka Ortega & Jon Alvarez  
Alex Ugalde  
Unai Azkarate

**Banaketa:**

Txantxangorri taldea

**Tirada:**

4.000 ale.

**Inprimategia:**

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

**Copyright:**

BERRIGARA

**Lege gordailua:**

SS 50/91

**ISSN:**

1130-6599

**BERRIGARAK** ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



**Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du**



**Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du**

## Z E B E R R I D A ?

## JUAN LUIS ARANA

**Deba Garaiko Gurutze Gorrikoa**

- Kubarako eskola materiala biltzen hasi zarete...

- Horrela da bai. Probinzia bakoitzeko Gurutze Gorriak herrialde bat aukeratzen du nazioarteko laguntza eskaintzeko eta Gipuzkoako Gurutze Gorria Kubarekin kolaboratzen hasi zen. Bertan, itsas erreskateko ikastaro batzuk ematerakoan eskoletan material ezberdinaren faltan zuedela ohartu ginen eta kanpaina hau martxan jartzea erabaki genuen. Otsailaren amaierara arte eskolako oinarrizko materiala batuko dugu eta interesatuek, Bergaran, estanko eta hainbat dendatan utzi ahal izango dute material hori.

- **Noiz bidaliko da batutakoa Kubara?**



- Kanpaina oso ondo doala esan behar da eta dagoeneko batutakoaren partida bat Kubara bidali da bertako hegazkin konpainiarekin daukagun akordioari esker. Falta dena otsaila amaieran bilduko da eta Kubako Gurutze Gorria arduratuko da material errepertoa egiteaz.

**"Oinarrizko eskola materiala Kubara bidaltzeko kanpaina oso ondo doa"**

## I T U R R I O N E T I K

**Bergarako Udaletxea intsumiso deklaratu daiteke**

BOTA Bergarako Objeto Talde Antimilitaristak idatzi bat luzatu die Udalbatza osatzen duten alderdi politiko guztiei, Plenoan mozio bat aurkeztu ahal izateko.

Bertan, BOTA taldeak, besteak beste, Bergarako Udaletxea intsumiso egiteko eskatzen du. HBk eta EAK mozioa Plenora eramateko prest daudela adierazi dute. EAJ oraindik mozio aztertzen dago eta EAJk ez dio BERRIGARari azaldu nahi izan zein jarrera hartuko duen. Era berean, ezinezkoa izan zaigu PSE-EEren iritzia ezagutzea. HB eta EAK baiezkotzea ematen badute, Bergarako Udaletxea intsumiso deklaratu da. Oraindik ez da Plenoko fetxa zehaztu.

E S A N  
D U T E

"Emakumeok oraindik gure komizitatea topatu behar dugu. Ez gaude batera ohituta geure buruari barre egiten. Hori frogatzeko gure hurbileko historian bi emakume komikoak besterik ez dira egon: Mari Sampere eta Lina Morgan. Emakumeen arketipo ugari daude baina gehienak gizonezkoek egindakoak dira"

**VIRGINIA IMAZ**  
Klowna  
DEIA

"Buesa eta Rekalde, aurreko sailburuei, A ereduaren beherakada probokatzeko eskaintza zuzendu öte zuten galdetu beharko genieke. Nik ez dut uste. Hori modu naturalean eman da eta gaur egun ere hori gertatzen ari da. D eredua ez da A ereduaren kaltetan indartu. A modelook jeitsiera nabarmena izan du azken 8 urteetan eta horrek eragin zuzena izan du ikasketa ertainengan"

**ENEKO OREGI**  
Hezkuntza  
sailburuordea  
EL CORREO




### LOS PUENTES DE MADISON

Ostirala: 22.30.  
Larunbata: 17.00, 19.30, 22.30.  
Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.  
Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).



### EL NIÑO INVISIBLE

Igandea: 11.30.



### LA VERSION BROWNING

Osteguna: 20.00.

## Zinea

▼▼ **Clint Eastwoodek**, zuzendari modura, kritikaren errekonozimendua jaso du *Bird* edota *Sin perdón* bezalako filmeei esker. Azken honetan **Robert James Waller**en nobela egokitu du. *Robert Kincaid* (**Eastwood**) argazkilaria Iowa heldu da 1965eko udazkenean, Roseman eta Holliwelleko zubiak erretratatzeko asmoz. Bertan, *Francesca Johnson* (**Meryl Streep**) ezagutzeko aukera izango du, bion artean amodioa piztuko delarik...

▼▼ Lagun talde bat Toledora doa eskursio bat egitera eta bertan *Aerobindo* pertsonaia bitxiarekin topo egingo dute. Berari esker XII. mendera bidaiatuko dute eta *Cornelio* alkimistaren eskutik hainbat sekretu ezagutu ahal izango dituzte. **Bom Bom Chip** taldeko kideak dira **Rafael Moleón**en filme honetako protagonistak.

▼▼ **Mike Figgis** (*Lunes tormentoso*) zuzendari britaniarraren filme honetan, **Albert Finney**, **Greta Scacchi**, **Matthew Modine** edota **Julian Sands** aktore ezagunak dira errepartoan. Ikastetxe ingeles bateko giro berezia eta erretiratzear dagoen Crocker-Harris irakaslearen (**Albert Finney**) gorabeherak azaltzen zaizkigu bertan.

## Deiak

▼ **Dani Laskurainen** margo erakusketa Bergarako Kultur Etxean igandera arte.

▼ **Pedro Luis Ormazabalen** argazkiak Elgoibarko Kultur Etxean, otsailaren 29ra arte.

▼ **Argazkiak**. Juan Antonio Unzurrunzagaren erakusketa Naitari tabernan.

▼ **Eskulan ikastaroa**. Jardun elkarteak antolatuta, otsailaren 24tik maiatzaren 18 bitarteko larunbatetan Kartzela Zaharrean. Izen-ematea eta argibideak Jardunen, 76 08 19 telefono zenbakian.

## Ogia

▼ **Igandea 11:** Ogizun.

## FARMAZIAK

- ▼ **Ostirala 9:** Estella.
- ▼ **Larunbata 10:** Mozos.
- ▼ **Igandea 11:** Mozos.
- ▼ **Astelehena 12:** Camacho.
- ▼ **Astearte 13:** Puy.
- ▼ **Asteazkena 14:** Guallar.
- ▼ **Osteguna 15:** Estella.



# GAZTELU BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA




# Argazkiak ikusgai

## Juan Antonio Unzurrunzagaren lanak Naikarin

**Juan Antonio** Unzurrunzaga Pol-Pol Argazki Taldeko kidearen erakusketa ikusgai dago egunotan Naikari tabernan. Oñatiarra izatez, Unzurrunzaga (43 urte) 21 urterekin etorri zen Bergarara eta berehala Pol-Pol Argazki Taldean sartu zen. *"Horrela da bai, taldeko beteranoetarikoa naiz, baina ez zabarre-na"* argitzen du umorez. Txikitatik gustatu izan zaito argazkilaritza: *"12 urterekin hasi nintzen, orduan Chocolates Loyolak oparitzen zituen kamara bartariko batekin"*.

Orain bere hirugarren erakusketa egin ahal izan du Unzurrunzagak. Koloretak 16 argazki dira guztira eta gehienak sistema light deiturikoaz tratatu ditu Unzurrunzagak. *"Gebienbat erretratuak gustatzen zaizkit, baina bemen aukera gutxi dago erretratuak lantzeko estudiorik ez baldin badaukazu. Gainera, erakusketak egiterako orduan, hobe zerbait orijinalagoa ekartzea, jendea aspertuta dago erretratu-ekin. Horregatik ekarri ditut landutako argazki hauek. Diapositibetatik fotolitoak ateratzen ditut*



Koloretako 16 argazki osatzen da Unzurrunzagak Naikari tabernan ikusgai duen erakusketa.

*eta ondoren hasten naiz argazkiei ikutu berezi batzuk ematen, oso kolore bitxiak hartzen dituzte eta koadro antzerakoak direla esan daiteke"*.

Esan bezala, Juan Antonio Unzurrunzaga hasieratik dago Pol-Pol Argazki Taldean. *"Mendi asuntzoagatik baino, ar-*

*gazkilaritza saila interesatzen zitzaidalako egin nintzen Pol-Poleko bazkide. Nere ustez, argazkilaritza taldeak lan interesgarria egiten du. Astero biltzen gara lan ezberdinak komentatzeko eta horrela asko ikasten dugu elkarrekin"*.

Bere gustuko argazki-

lariengatik galdetu diogu Unzurrunzagari: *"Herri mailan Benito Cantero, Joseba Egibar, Agustin Gurrutxaga gustatzen zaizkit baina lehen esan dizudan moduan taldeak maila ona du orokorrean eta gazteak ere fuerte datoz. Eta beste maila batean David Hamilton, Alberto Schommer edota Juanxu Rodríguezen lanak interesatzen zaizkit"*.

Etorkizuneko proiektuen artean, mugimenduko argazkiak lantzeko asmoa duela aitortu digu.

**"Erakusketa honetarako erretratuak baztertu eta originaltasuna bilatu dut"**

### ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi ☎ 76 15 09

### YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3  
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8  
☎ 76 54 73

A  
R  
R  
A  
N  
O



**Taberna**

Kruz Gallastegi BERGARA

## Gazteak garelako

Aranzadi ikastolako 1. BBBn gabilzan neska talde bat gara, eta urtarrilaren 26an San Juan Bosko egunean gertatu zitzaigun gauza batez hitz egin nahi genizueke. Gure klaseko neska mutikoa arratsaldeko ordu 2etarako bazkaltzeko mahaia hartuta geneukan Antxoni jatetxean. Ongi bazkaldu eta ordaindu ondoren, bazkariari giro polita jartzeko asmoz gure gelako bi lagunek trikitixa jotzea erabaki zuten. Antxoni jatetxeko gizonetakoak ez zigun trikitixa jotzen utzi, beste batzuk bazkaltzera zetozela esanez, baina guk jaramonik egin gabe pieza bat edo beste jo genuen.

Ondoren, jendea dantzan hasi zen eta orduan gehiago pentsatu gabe Antxoniko jabeak kalera bota gintuen. Arratsaldeko 3,30etarako kalean ginen. Eta horregatik idatzi dugu karta hau, protesta txiki bat egiteko.

Ez al duzue pentsatzen nagusiak izango bagina ez gintuztela kalera botako?

Ea hurrengo batean hobeto jokatzeko duten gu bezalako gatzetxoekin, bestela hurrengo batean ezin izango dugu inon bazkaldu. Gure eskaria beteko duzuela-koan, agur bero bat.

N. M. (ARANZADI IKASTOLAKO 1. BBBKO NESKA  
TALDE BATEN IZENEAN)

## Yoga ikastaroa

Aurrekoan Udaleko Ongizate Zerbitzura deitu nuen yoga ikastaro baten berri jakiteko. Lagun batek oso ondo zegoela esan zidan eta ni ere bertara joateko animatu nintzen. Baina sorpresa galanta hartu nuen Udalera deitu nuen: yoga ikastaroa emakumeentzat zen bakarrik, ez nuen bertara joateko aukerarik.

Telefonoa hartu zidanari horren arrazoia argitzeko eskatu nion baina ez nuen trankil geratzeko moduko erantzunik jaso: beti izan dela horrela eta ez dutela gizonetakoentzat beste ikastaro bat antolatu edo gizonak onartzeko aukerarik aztertu. Nik hurrengo batean gizonetakoak kontutan hartzeko eskatu nion.

Halere, ez dut ulertzen Udalak bul-tzatutako ihardueretan desberdintasun hori egitea. Ez dut yoga batera ezagutzen, baina ez dut uste emakumeen berezko praktika denik. Gainera, lagunaren artean, jende asko ezagutzen dut horrekin interesatuta dagoena eta uste dut harrera ona izango lukeela gizonetakoentzako yoga ikastaro batek.

Ongizate Zerbitzuari aukera hori azter dezala eskatu nahi nioke lerro haue-tatik. Mila esker eta hurrengo batera arte.

E. M. (15.384.298)

## Bste kantxa bat!!

Labegaraietako Futbito Txapelketan parte hartzen dut eta astebukaera guztietan jokatzeko futbito partiduak nire taldearekin batera. Kirol piskat egin eta astia pasatzeko primeran dago. Antolaketa aldetik ere ez dut kejarik.

Hala ere, arazo bat dauka txapelketak: talde gehiegi dira kantxa bakar barentzat.


Kontua da Labegaraietako kantxa jende askok erabiltzen duela, eskola kirolekoak, saskibaloia eta eskubaloia taldeek, futbito txapelketakoek... eta guztiontzat ez dago tokirik.

Futbito txapelketan ari garenok kanpoaldean jokatu behar dugu hamabosetean behin eta euria denean ia ezinezkoa da bertan jokatzeko. Zorua oso arriskutsu eta labankor geratzen da bustitzen denean eta lesioren bat egitea oso erraza da. Bestalde, denbora guztian baloiaren-bila joan beharrean izaten gara, sarerik ez dagoelako.

Honen aurrean, eskatu nahi nioke dagokionari, kantxa berri bat egiteko edota kanpokoa estaltzeko eta zoru berria jartzeko. 500 bat lagun bagara futbito txapelketan eta nahikoa ordaintzen dugula uste dut.

E. A. (72. 572. 786)

## Tiira biraka



◆ **Jardunen bideo emanaldia**

Jardun Elkarateak hurrei zuzendutako bideo emanaldien programazioaren barruan, bihar larunbata, otsailak 11, Txirri, Mirri eta Txiribitonon bideoa emango da goizeko 11etan Kultur Etxean. Sarrerak 50 pezeta balio izango du.

◆ **Pentekoste jaietako jaialdia**

Udaleko Kultur Zerbitzua Pazkuetako jaiak prestatzen hasi da dagoeneko. Horrela, egitarauaren barnean izan ohi diren rock jaialdia prestatzeko bilera egingo da asteartean, otsailak 13, 7etan Kultur Etxean. Antolatetan parte hartu edota aktuatzea nahi duten guztiei bertara joateko dei egiten zaie Kultur Zerbitzutik.



Kontzertuek eta bestelako ekitaldiek araudi berria izan beharko dute etorkizunean.

## Jaialdi eta ikuskizun publikoetarako araudi berria

**Herrian festibalak** eta ikuskizun publikoak antolatu ahal izateko araudia aztertzen ari da egunotan Udaleko Gobernazio Batzordean.

Araudi horren arabera, festibaletarako eskakizunak 10 eguneko aurre-erapenarekin egin beharko dira, lokal itxietan ala aire librean diren zehaztuz. Lokal itxien kasuan, lokalak segurtasun neurriak betetzen dituela frogatu beharko da eta 300 pertsona baino gehiagorako bada, larrialdietarako plan bat. Horretaz gain, erantzunkizun zibi-

leko poliza bat (25 milioi pezetakoa gehienez). Aire librean bada, berriz, aurreko neurriekin batera, zehaztu egin beharko da zenbat lagun sartu ahal izango diren. Tablatuaren beharra baldin badago, eskatu egin beharko da, tablatuaren neurriak zehaztuz. Tablatua kasu berezietan bakarrik lagako da eta Udaleko tablaturaren berria Udalak antolatutako ekitaldietan bakarrik erabili ahal izango da.

Bestalde, auzotan eta festibal partikularretan jaietarako erremolkea era-

biliko da eta Udalaren materialak erabiltzekotan, beti ere, arduradun bat izendatu beharko da, 25.000 eta 100.000 pta. bitarteko fidantza jarriaz. Era berean, antolatzaileak instalakuntza gastuen kargu egingo dira; Udala, berriz, ez da gerta litezkeen istripuen erantzule egingo (berak antolatutako ekintzetan ez bada) eta araudiak jasotzen ez dituen kasuetan azaroaren 10eko 4/1995 legea aplikatuko da.

Araudi honek, oraindik, Plenoaren oneritzia jaso beharko du.

**HILDAKOAK**

**Concepción Maiztegi Elkoroberezibar**

Otsailak 1

**Miren Itziar Romaratezabala Rementeria**

Otsailak 5, 40 urte

**JAIOTAKOAK**

**Unai Irizar Gantxegi**

Urtarrilak 29

**Uxue Sanz Errasti**

Otsailak 4

**Andoni Sanz Errasti**

Otsailak 4

Industria hornikuntzak



Industriaren alde

# MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE • Telefonoa: 79 42 22 • Faxa: 76 47 89

Santa Kruz, 25 ARETXABALETA • Telefonoa: 77 11 75 • Faxa: 77 13 08

### ◆ Matrikula zabalik AEK Akulu Euskaltegian

Datorren otsailaren 17ra arte zabalik egongo da Bergarako Akulu AEK euskaltegian matrikulazio kanpaina. Bestalde, irakasle berrien beharrea dago AEKko euskaltegia. Interesatuak 76 05 18 telefonora deitu dezakete argibideak eskatzeko.

### ◆ Zeinu hizkuntza ikastaroa

Arans-Gi eskolak pertsona gorrekin komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituztenentzat Zeinuen hizkuntzako bi ikastaro (0 eta 1 mailak) antolatu ditu, otsailaren 22tik aurrera, ostegunetan 18.30etatik 20.30etara. Izen-ematea eta argibideak 76 27 03 telefonoan.

### ◆ EAJren oharra

Martxoaren 3ko hauteskunde orokorretan botoa korreoz eman nahi dutenentzat bulegoa zabaldu du Bergarako EAJk Batzokian, asteleheneetik ostiralera, 12etatik ordubatera eta 6etatik 8etara.

### ◆ Antzerki ikastaroa

Virago antzerki taldeak antzerki ikastaroa antolatu du otsailaren 17tik maiatzaren 25era, larunbatetan 10etatik 12etara Zabalotegin. Izen-ematea (5.000 pta.) Kultur Etxean egin daiteke.

### ◆ Omenaldia

Igandean, otsailak 11, Felix Aseginolaza, Bizente Okina eta Sabin Zelaia Parrokiko koruko kideek omenaldia jasoko dute Santa Marinaran eguerdiko 12etako mezan.



Asteazkenean jende ugari hurbildu zen odol emaleek Seminarioan duten lokalera.

## Odol emaleen elkarateak ekin die 1996ko odol ateraldiei

### *Hamabostean behin Seminarioko baxuetan*

Bergarako Odol Emaleen Elkarateak dagoeneko ekin die aurtengo odol ateraldiei. 1967an sortutako elkarate honek 850 odol emale aktibo ditu (guztira 1.100 lagun dira) eta Gipuzkoako batz besteko kopurua gainditzen du; probintzian 1.000 biztanleko 60 odol emale badaude, Bergaran 80 dira gaur egun. Hala ere, Fernando Idigoras elkarateko presidentek azpimarratzen duen moduan, "gazteak etortzen hasi dira baina oraindik gazte jende gehiagoren beharrea gaude, horixe da gure kezka nagusienetariko bat".

Odol ateraldiak hamabostean behin egiten dira Seminarioko baxuetan (Telefonica parean). Lokala orain urte bete berriztu zen odol

emaleak modu hobean atenditu ahal izateko. Elkarateko arduradunak pozik daude, iaz 1.235 odol poltsa (0,4 litrokoak) jaso baitziren Bergaran. Pasa den urtarrilean, berriz, 116 bete ziren. Hilean bi aldiz Donostiako Gurutze Gorrikoak etortzen dira odol ateraldiak egitera.

Bergarako Odol Emaleen elkarateak milioi erdi pezetako aurrekontua dauka eta sarrerak, berriz, 400.000 pezetatara iristen dira. Elkarateak Udala, Eroski, Euskadiko Kutxa eta bazkide babesleen laguntza du. Bazkide babesleen kopurua haunditzeko asmotan ari da elkaratea eta horretarako herriko enpresei laguntza emateko dei bat luzatu nahi diete.

*Pepelu*

**Ilepaindegia**

Zurradero, 2 ☎ 76 43 07  
BERGARA

**LAZKANO**

**Oinetakoak**

Barrenkale, 15  
☎ 76 25 03

**AGIRREBEÑA**

**oinetakoak  
arropa denda  
lenzeria**

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29



# Haizeak hainbat arazo sortu ditu herrian aste honetan

## 125 litro metro karratuko jaso dira Bergaran

Euri ugari egiteaz gain, haize bolada fuertek izan ditugu egunotan Bergaran. Haizeak hainbat arazo sortu ditu herrian. Udaltzaingotik jakinarazi digutenez, asteazkenean, Seminarioko patioan tejabana bat jausi zen, Komenio kalean jausteko zeuden teila batzuk bertan behera bota behar izan zituzten suhiltzaileek, Pizinetan ere plaka batzuk jausi ziren, San Migel kalean ere arazoak izan ziren teilekin eta, asteazken arratsaldean, Elgetako bidea ere itxita egon zen zuhaitz batzuk, haizearen eraginez, errepidera jausi ondoren. Era berean argindarra joan zen herriko hainbat puntutan.

Euriari dagokionez, Luis Mari Agirrek emandako datuen arabera,

hiru egunetan metro karratuko 125 litro jaso dira. Astelehenean 51 litro jaso ziren, asteartean 38 litro eta asteazkenean, berriz, 36 l./m2ko. Luis Mari Agirrek aipatu digunez normal samarra da urte sasoi honetan honelako euri jasak izatea. Hala ere, otsaileko hiru egunetan pasa den abenduan eta urtarrilean baino euri gehiago egin du. Abenduan 120 l/m2ko jaso ziren eta urtarrilean 80 l/m2ko. Haizea, ordea, ez da ohikoa izan. *"Oso haize fuertea egin du bai. Hala ere gogoan dut 1941eko otsailaren 15eko haizea: Zumaian trenaren itsasora bota zuen, Parteittin Arrekoxo baserria jausi zen, Santanderren 37 kalek sua hartu zuten... Ikaragarria izan zen bura"*.



Haizearen eraginez, Seminarioko lokal honetako tejabana jausi zen asteazkenean.

### ◆ Amodiozko gutunak

Asteazkenean, otsailak 14, Jardunek antolatutako Amodiozko gutunen lehiaketako sari banaketa egingo da 19.30etan Kartzela Zaharrean. Besteak beste, Oihulari Klown eta Musika Eskolako Soka Boskotearen aktuzioak izango dira.

### ◆ Erakusketa, hitzaldi eta bideoak

Komite Internazionalistak eta Mugen Gaietik ONG taldeak antolatuta, esklabutza, arrazismoa eta migrazioari buruzko erakusketa izango da otsailaren 13tik 25era bitartean Kultur Etxean. Otsailaren 22an, Agustin Unzurrunzaga SOS Arrazakeriako kideak Europako migrazio eta arrazismoari buruzko hitzaldia emango du 19.30etan eta, azkenik, otsailaren 25ean, "La marcha" izenburuko bideoa emango da

### ◆ Istripua

Astearte eguerdian kotxe batek B.A.M. 80 urteko emakume bergararra harrapatu zuen Ibargarain. Emakumeak buruan kolpe fuertea bat jasan eta klabikula hautsi zuen kolpearen ondorioz. Arrasatera eramán zuten egoera larrian baina badirudi bere osasunak hobera egin duela.

### ◆ Mus txapeldunak

Etxabek eta Gómezek osatutako bikoteak irabazi zuen San Blaseko Mus Txapelketa, finalean Retolaza eta Lazpiurri irabazi ondoren. Txapeldunek trofeo bana, txapelak eta 20.000 pezetako saria eramán zuten. Antolatzaileen arabera, jende ugari hurbildu zen Murinondora San Blas egunez.

# MUGICA

GOXOTEGIA



Artekale, 3  
☎ 76 10 34

- Pastelak
- Errellenoak
- Tostoiak
- Tartak

# FERNANDEZ



San Antonio, 3  
☎ 76 22 93

Oihal puskak  
Oihalak

Ibargarai, 2  
☎ 76 53 22



Barrenkale, 4 ☎ 76 18 14

## II. KAPITULUA

# TRINIDADE

# KOMENTUA

**Trinidadeko monasterioa 1563. urtean sortu zen eta ordutik bertako biztanleak monja klara-tarrak dira (Bergaran monjazarra izenez ezagutzen ditugu), klausurako erlijiosak. Horrelako elkarte kontenplati-boetan musikak, kantuak, garrantzi handia dauka.**

**E**liza honetan, bere historia luzean hiru organo izan dira. Lehenengo aipamenak 1698ko dokumentu baten topa ditzakegu, bertan Joan Bautista de Telleria aipatzen da organoaren egile bezala, baina ez da gehiago zehazten.

Hurrengo datuak ehun urte berandugokoak dira, 1789-1792 bitartekoak. urte horietan organo berri bat egitea erabaki zuten, lana oñatiar baten kargu utzi zuten: Domingo de Garagalza. Papeleoa luzea izaten zen. Monjek, frantziskotarren probintziako arduradunari baime-na eskatu behar zioten, hark onarpena bidali behar zuen...

Gauza bitxi bezala, Domingo de Geragalza eta komentuarien arteko kontratuan klausula batek ezartzen du organugilea eta bere ofizialak Bergaran egongo ziren denboran, janari eta egongu gastuak komen-

tuaren kontukoak zirela. Lau hilabete egon ziren oñatiarrek Goenkaleko organoan lan egiten.

### Organo barrokoa

**O**rganoa amaituta zegoenean, oniritzia ematera Arantzazuko organujole zen Fray Joseph de Larrañaga etorri zen, oso gustokoa topatu zuen amaitu-berri zegoen lana: "Me parece que dicha obra es la mas brillante y solida que se halla en el contorno".

Kontratuan organoa zehatz-mehatz deskribatzen da azkenengo detailera arte. Organo barro-

# BERGARAKO ORGANOAK

koa zen erabat, tronpeta eta txirimia bezalako erregistro fuerteez osatua.

### Gaur egungo organoa mende hasierakoa da

**G**aur egungo organoa 1902. urtekoa da, Bartzelonakoa Lope Alberdi y Cia etxeak eginikoa.

Organoagatik 12.000 pzta. ordaindu ziren. Lehenagoko organoa (1792) zaharkitua edo modaz pasata gelditu zela pentsatuko zuten monjek, eta garaiko gustu modernoetara egokituko zen instrumento bat erostea beharrezkotzat ikusiko zuten.

Beharbada, mende honen hasierako monjentzat, organo haren tronpeta eta txirimiak ez ziren oso gustoko izango. kontutan eduki behar da gainera, orga-

nugilearen izaera artesanala garai hartan (1902) galduta zegoela gehiengo hein handi batean. López Alberdiren organo honek bi teklatu, pedal eta hamalau erregistro edo doinu dauzka. Erregistroen artean bitxikeria bat aurki dezakegu: pajaritos deritzona.

Izenak dioten bezala, txorien abestia imitatzen du, eta ura behar du funtzionatzeko. Organo guztia kaxa baten barruan dago nolabait, eta organujoleak pedal batekin kaxa hori itxi edo zabaldu dezake, kontraste handiak lortuz. Kaxa zabalik dagoenean soinu fuertea eta kaxa istean, soinu ahulapiano deritzaiona.

### Gaztelako katedralak

**O**rganoak, gaur egun ikus dezakegun kokaleku

honetan 40-50 urte baino gehiago ez daramatza. Lehen, alboko koro edo tribuna batean zegoen, elizaren nabe zentralerantz zegoen balcoitxo batean.

Kokapen hori (zaharra ez gaurkoa) ez da Europa guztian ez beste inon ezagutzen, horregatik "iberiar kolokazioa" deitzen zaio, nolabait Gaztelako katedralen eredu ja rraitzen zen, non bi organo egoten ziren, parez-pare, eta organujolea organoari begira egoten zen eta ez nabera, gaur egun ohizkoa den bezala.

Kokapen hau Errioxako eliza gehienetan gordetzen dute oraindik, garai hartako organoak kontserbatzen baitutuzte eta organoa, beti, horrelako balcoi batean dago kokatuta.

MONJA ZAHARRETA KO GAUR EGUNGO ORGANO A (1902) BARTZELONAKO ETXE BATEK EGIN ZUEN.



**Hezkuntza sistema berritu egingo dela eta neska-mutilak 16 urte arte derrigorrez joango dira eskolara. Irailean hasiko den DBH-k, Derrigorrezko bigarren hezkuntzak, hezkuntza publiko-ko ikastetxeen berarrantolaketa ekarri du. Eskola mapak zehaztu du zein ikastetxek emango duten lehenengo hezkuntza eta zeinek DBH.**



Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza dela eta, 16 urte arte derrigorrezkoa izango da eskolara joatea.

# Hezkuntza berritua

## Eskola 16 urte arte

**B**ergaran hiru ikastetxetan emango da: Migel Altuna berri- an (Ipintza eta Migel Altu- nako institutuko irakasle- ekin) Aranzadin eta Mari- aren Lagundian.

Urte askotako egitura - OHO, BBB, UBI, Lanbide Heziketa eta REM- desa- gertu egingo da. Honela, hemendik aurrera era ho- netara banatuko da hez- kuntza sistema: 6 urte arte haur hezkuntza, 6-12ra le- hen hezkuntza, 12-16ra DBH (Derrigorrezko Bi- garren Hezkuntza: 1. zi- kloa: 12-14 urte eta 2. zi-

kloa: 14-16). Gero, 16-20- ra DOBH (Derrigorrezko- aren ondoko Bigarren Hezkuntza): HSAOL (LOGSE) batxillergoak eta ziklo formatiboak (erdi eta goi mailakoak) egite- ko aukera izango da.

### **6. eta 7. mailakoekin hasiko da DBH**

Aurten OHoko 6. mailan eta 7. mailan dabilta- nekin hasiko da sistema berria. 6. maila egiten ari direnak DBHko 1. zikloko 1. mailan sartuko dira; haur hauek erreforman

sartuta daudenez DBHn sartzean erreformari jarraituko diote. Berria, 7. mailakoentzat izango da; hauek 2. mailari ekingo diote. DBHko ikasleek orain arte baino gai auke- ra zabalagoa izango dute eta espezializazioaren bi- dean hasiko dira gazterik. Une honetan BBB, REM nahiz LH egiten ari dire- nek lehenengo ereduari jarraituko diote.

### **DBH, erreformaren jarraipena**

Mapa berriaren ondo-

rioz, Bergaran, Antzuolan eta Elgetan hezkuntza pu- blikoan 6. eta 7. maila egiten ari diren neska- mutilek ikastetxez aldatu beharko dute. Bergara in- gururako DBH publiko bat egongo da, Migel Al- tuna berria, eta bertara joateko aukera izango du- te Antzuolako eta Elgeta- ko eskolako umeek, San Martinen ikasi dutenek edota nahi duen orok. J.M. Larrañagak eta L. Berri- riotxoak diotenez, au- rrez garbi zegoen orain gertatu dena gauzatuko zela: "Erreformak garbi



Bergaran DBHko ikastetxe publiko berria eginda dago eta hizkuntza ereduak ziurtatuta daude.

dio lehen bezkuntza eta bigarrena egongo dela. Bergaran bi DBH ikastetxe publiko jaritzea ezinezkoa zela ikusten genuenez, batetik Ipintza eta Migel Altuna fusionatzea erabaki genuen eta, bestetik, ikastetxe berria egitea. Hasieran Migel Altunaren banditze bezala planteatu zen, baina guk garbi genuen DBHko ikastetxea izango zela. Aldaketak goitik baldin badatoz traumatikoak izaten dira; guk geuk ikusi genuen zerbait egin beharra eta geuk proposatu genion administrazioari datoren urtean gauzatuko den ertainetako bi zentroen fusioa. Eskaintza

zabala ematen duen proiektu bakarra aberatsagoa eta interesgarriagoa da, elkarri konpetentzia egin barik".

**Antzuola, Elgeta eta Bergararako DBH publiko bakarra**

Honela, hezkuntza publikoari dagokionez, lehen hezkuntza San Martinen, Antzuolan eta Elgetan egongo da; DBH, Migel Altuna berrian (Ipintza eta M. Altunako irakasleekin) eta batxillergoa eta ziklo formatiboak Ipintzan eta Migel Altunan, baina fusioari esker zentro bat bezala funtzionatuko dute, "Hartara, 20 urte arteko bezkuntza

proiektu pedagogiko osoa, euskalduna, bateratua -herri guztien koordinazioarekin-, anitza eta doanekoa eskainiko da".


**Mapa beranduegi eta azkarregi**

Institutuetako zuzendarien iritziz, beranduegi eta azkarregi erabaki da mapa: "prozesua hasita zegoen, jakinekoa zen 96ko irailean haur hauek 2. bezkuntzan sartu behar zutela. Duela lau urtetik geldirik egon dira eta orain iraila gainean dagoela, eta dena 9 hila-betetan erabaki da. Lehenagotik heldu behar zitzaion auziari eta patxada gebiagoz egin dena".

San Martin eskola publikoko zuzendaria, Juan Karlos Goñi ere, beste guztiak bezala bat dator honekin: "Bergararen kasuan mapa ondo dago, ez da arazorik izan: bizkuntza ereduaren jarraipena bermatuta dago, eskola berria eginda... garrantzitsuena da proiektu pedagogikoa denon



DBHn orain arteko sisteman baino gai aukera zabalagoa izango da.



**LASA**  
Jatetxea

OZAETA JAUREGIA Tfnoa: 76 10 55 Faxa: 76 20 29

**KONDE**



Burdiñate, 1 ☎ 76 02 57

PANADEROKUA

## "Eduki aldetik hiri eta herri haundien ikuspegitik eginda dago eskola mapa". Antzuola eta Elgetako udal, guraso eta irakasleak

adostasuna medio egin dela. Dena den, malgugoa izan behar zuen, denbora gutxian egin da eta zenbait arazo ez dira kontutan hartu, herri txikien kasua, esaterako".

### Antzuola eta Elgeta kaltetuta

Antzuolan eta Elgetan DBHrik izango ez denez, haurrek beste herrietara abiatu beharko dute lehen hezkuntza bukatzean. Berriak Elgetako eta Antzuolako gurasoak eta irakasleak ez ditu ezustean harrapatu: "bagekenei gertatuko zela, baina horrek ez du esan nahi ados gaudenik. Herriak eta eskolak asko galduko dute" diote.

Pilar Etxaniz Antzuolako zuzendariaren arabera, mapa herri handi eta hiriburuetan pentsatuta egin da. "Jaiotze tasak jeitsi direla eta baliabideak egituratu beharra zegoen. HSAOLaren filosofia-pedagogiari dagozkien irizpideez gain, beste zenbait ere hartu dira kontutan, tartean politikoak (ikastetxe publiko-pribatuaren arteko oreka ziurtatzea, esaterako) eta aplikatu egin

dituzte. Eta jakina, herri txikietan borrelako zentro bat mantentzeko populaziorik ez dagoenez, irakasleak herri handietara eramatea erabaki dute. Baina hori erizpideen aplikazio butsa izan da, ez da kontutan hartu herri txikiaren nortasuna, berezitasuna eta problematika desberdina. Beraz, guretzat arazo pedagogikoaz gain, arazo soziologiko-politikoak dago. Hezkuntza zati bat ere kentzen badigute, jendea nola geratuko da zerbitzurik ez duen eta pisuak garesti dituen herri batean? Herri txikien etorkizuna dago jokoan".

Elgetakoek ere berdina esateaz gain, delegazioaz kezu dira: "irailean estrenatu genuen eraikin berria, berria eta galanta. Orain gelak eta umeak kendu behar dizkigute; ez dakigu zertan dabilen delegazioa".

### 3 urtetan gestiotan

Elgetako zuzendaritzaren iritziz mapa aspalditik zegoen erabakita. "Aspalditik zegoen mapa egin da, baina ez dute jakinaz, horrela jendeak presiorik egin ez dezan. Ezer egiteko astirik ez

dagoenean kaleratu dute eta ezertarako aukerarik ez dugu izan". Are gehiago, Pilar Etxanizek dioenez, duela hiru bat ikasturte hasi ziren gai honi buruzko gestioak egiten. "Duela hiru urte hasi ginen gai hau lan-

tzen. Ikasturte bonetan DBHko 1. zikloa (12-14) bemen geratzea eskatu dugu: bai herri eskola moduan, edo Bergarako gela moduan, hau da administratiboki Bergarako eta fisikoki Antzuolakoa izanik. Gurasoek eta irakasleok ezer lortzen ez genuela ikusita udalak onartu zuen gestioetan sartzea, baina alferrik izan da, oraindik ez dugu erantzun ofizialik jaso".



Bergaran DBH Migel Altuna berrian -Ipintza eta Migel Altunako irakasleekin-, Aranzadin eta Mariaren Lagundian egingo da.

# ONENA

## TINTATEGIA

Barrenkale, 29 BERGARA

# Amets



- HERGO eta HOBBY karabanak eta RIVIERA autokarabanak
- Zango erremolkeak
- Era guztietako kanping eta karabanentzako osagarriak

Informazioa: ☎ 76 25 92 / 78 19 50

AMETS TAILERRAK  
Berezano auzoa OÑATI

Elgetan beste hainbeste gertatu da.

**Dirurik ezean, herri txikia kaltetua**

Elgetako zuzendaritzaren arabera, aldaketa handiak izaten dira hezkuntzan. *"Garai batean ia auzo guztietan jarri zituzten eskolak, orain kendu egin behar dira. Dirua dagoenean herri txikiak onak dira eta bultzatu egiten dira, ez dagoenean, berriz, kaltetuta ateratzen dira".*

Elgetakoak bereziki kezkatuta daude umeak Bergarara (edo aukeratzaren duten tokira) joango direlako: *"6. mailakoak 6 ume besterik ez dira. Gainera gu Elgetan, beharbada euren kalterako,*

**Mariaren Lagundia eta Aranzadi ikastoletan ere Derrigorrezko 2. Hezkuntza**

**H**ezkuntza publikoan DBH ikastetxe bat egongo da Bergaran. Baina honetaz gain, beste bi ikastetxetan ere izango da DBH egiteko aukera: Aranzadi eta Mariaren Lagundia

ikastoletan.

Eskola mapak ez du hauetan eraginik izango, ikasleek zentro berean jarraituko baitute. Mariaren Lagundiko zuzendariak, Begoña Zubizarretak dioenez, eurentzat es-

kola mapak ez du eragin nabarmenik ekarri: "lehen ere bagenituen OHO, LH eta REMeko 1. zikloko ikasleak, gelak eta irakasleak, beraz, iraillean, DBHn 6. eta 7. mailakoak sartuko dira eta osteantzekoek lehenengo ereduari jarraituko diote".

Aranzadi ikastolan OHO, batxillergoa eta UBI egiteko aukera

dago. Irailetik aurrera hemen ere lehen hezkuntza eta DBH izango da; batxillergo ikasleek hasitakoa bukatuko dute.

Andoni Etxeberria ikastolako zuzendari pedagogikoak dioenez, "gauza bat da eskola mapa eta ikastetxeen kokapena eta beste bat, gurasoek ikastetxea aukeratzeko duten eskubidea. Eskola

*baina gehiegi babesten ohituta gaude, denak ondo ezagutzen ditugu, beti gaude euren gainean... Horiek beste ikastetxe batera joaten direnean nola*

*pasako ote dute?, aldaketa haundia izango dute".*

**Irakasleen banaketa**

Eskola mapak irakasle-

ei eragingo die. Oraindik zehazteke dago irakasleen banaketa, baina jakinekua da Elgetako eta Antzuolako umeek euren eskolan izandako irakasleak izango dituztela. *"Irakasleen mugimendua, ikasleen mugimenduak baldintzatuko du. Dena den, dagoeneko hasita gaude Antzuola, San Martin eta Elgetako irakasleak elkarlanean, mintegietan elkartzen, materiala prestatzen..."*

**Jangela eta garraioa**

DBHn eskolak egun osoz izango dira. Ondorioz, jaioterritik mugitu behar duten ikasleek garraioa eta jangela beharko dute. *"Bergaran jangela badago eta Hezkuntza sailak subentzionatuko du. Garraioa, berriz, donan izango da. Gero era-*



DBHn eskolak goiz eta arratsaldez izango dira.

**TOKI-ONA**  
**Bodegoia-taberna**  
 Eguneroko janariak / Txitxizotzak  
 Kazolatxoak / Txabierroak  
 Matxiategi, 1 Tfnoak: 76 39 53

**AGOITZ**  
**Tapizdenda**  
 San Lorenzo, 25 BERGARA  
 Tfnoa: 76 18 23

**DENA**  
**100etik**  
**ZURE OPARIENTZAKO**  
 Simon Arrieta, 3

ez du behar-urrrak lehen za bukatzen eskola bere-itu behar du ni duen ikas-eraman deza-  
 o Arregi zu-oro korrak luenez, esko-, esaterako. azio kanpai-u eraginik. naparen on-  
 dorioz hezkuntza saila matrikulazio kan-painan zenbait muga jartzen ari da, matri-kula genezakeen haur kopuruari dagokionez portzentaia bat gorde beharra dugulako eta publikotik pribatura etor daitekeen haur kopuruari ere mugak jartzen ari zaizkiola-ko. Jokaera dis-kriminatzailea dago hezkuntza sailetik".

*baki beharko da garraioa eta jangela nola antola-tu, ordutegiak, zaintzai-leak izango dituzten..."*

**Herri txikiak bildu dira**

Antzuolak eta Elgetak duten arazoa beste herri

txikiek ere badutenez, joan zen zapatuan Antzuolan Gipuzkoako herri txikientzako bilera deitu zuten. Bertan bildutako guraso eta udal ordezkari-ek, 80 lagun inguruk, adostasun osoz herri txi-kietan hezkuntza 14 urte arte ez lagatzeak ekarriko dituen ondorioak salatu zituzten, hauen ustez arazoa pedagogikoaz gain soziologikoa ere badelako. "Jaurlaritzako agin-tariek jokaera bikoitza darabilte. Batetik, neka-zal-ingurua babestu be-har dela diote eta beste-tik, ekonomia eta zerbi-tzuak herri handietan konzentratzera darama-tzaten erabakiak hartzen ari diren neurrian, esku-ak herri txikien heriotz sententzia sinatzen ari dira".

Horretaz gain, batzor-de bat osatu zen; batzor-



Antzuola, Elgeta eta Bergararako DBH publiko bakarra izango da.

deak, besteak beste, Hez- Oliverirekin, elkarrizketa kuntza Sailburuarekin, egitea eskatuko du.

**Askoren iritziz Eskola mapa azkarregi egin da, zenbait arazo kontutan hartzeke**

**BERGARAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

**DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAREN 1. ZIKLOAREN EZARPENA**  
 (AURTENGO OHOKO 6. eta 7. MAILAKO IKASLEENTZAT)

Honek suposatuko du Hezkuntz Erreformaren

**FASE BERRIA**

Derrigorrezkoa. Ikasleen gaitasuna landuko duena.

Elgeta, Antzuola eta Bergarako Eskola Publikoen ekarpenez burututako

**PROIEKTU BERRIA**

Integrala. Euskalduna Bateratua. Anitza. Doanekoa. Gurasoen partaidetza.


Ikastetxe berria. Proiektu berri honek behar dituen baldintza guztiak betetzen dituen

**ESKOLA BERRIA**

Ipintza ondoan dagoena (Miguel Altuna berria)  
 ☎ 76 20 82

**HAR EZAZU PARTE GURE PROIEKTUAN!!!**  
**ETORRI gure ikastetxera MATRIKULATZERA OTSAILAREN 1etik 20ra**

## Zer iruditzen zaizu derrigorrezko hezkuntza 16 urte arte luzatzea?




**Rafael Aranburu**  
29 urte, langilea

Ondo iruditzen zait. Gainera, jendea, gero lana topatzea nekez duenez, nonbaiten egon beharko da...



**Amagoia Ezenarro**  
26 urte, langilea

Ez dut gaia ondo kontrolatzen. Igual hezkuntza luzatzeko metodo bat izango da, gero lanik ez dagoenez...




**Carlos Ugarte**  
42 urte, langilea

Ikastea den guztia, ondo dagoela uste dut. Kanean egotea baino hobeto..., kanean ibiltzea alperrik da.



**Maite Valpuesta**  
36 urte, etxeandrea

Nik uste dut onerako izango dela, formazioa hobetu egingo da eta horrek eragin zuzena izango du ikasleengan.



**Eduardo Albisua**  
23 urte, ikaslea

Nire ustez jendearen formazioa hobetuko da. Nire aitak ez zuen eskola agiririk ere... Derrigorrezkoa denez, ikasleen onerako izango da.



**Beatriz Larrañaga**  
54 urte, langilea

Ondo iruditzen zait, orain arte 14 urte arte izaten zen eta hori gaztetxo da nere ustez.



**DEBA GARAIKO  
MANKOMUNITATEA**

### Lantegi-Eskolarako KULTUR IRAKASLE BAT kontratatu behar da, egun erdiz.

**Bete beharreko titulazioa:** Geografia eta Historian lizentziatua.  
**Kontratazio mota:** Behin-behinekoa, 1996-12-21era arte.

Interesatuak otsailaren 19ko eguerdiko ordubata baino lehen Arrasate Pasealekuko 5ean (Arrasate) dagoen Mankomunitatearen Erregistro Orokorrean beren **instantziak eta dokumentazioa aurkeztu** beharko dituzte, Mankomunitateak emandako ereduaren arabera.

Deialdiaren oinarriak Mankomunitatean daude (☎ 79 33 89-99)





## Anderoño Conchita

**T**xikitan, ikastolan, andereoño eta maixu ugari izan genituen. Orduan ere -eta orain errekuerdun gehiago-, eda dez nabarmentzen giñuzen banaka batzu: andereoño Pilare parbulitosen, Conchita, Lide eta Mariabitoria beranduago. Lehenagokoak zirelako, nagusienak zirelako.

Anderoño Conchita hil da eta heriotzak azken itxura ematen du. Azkena eta itxia (fededunak ez garenontzat behintzat). Baina andereoñoaren biografia itxia zen aspaldi. Beste hirurak bezala, lanerretiroan bizi baitzen.

Bizitzan zehar makina bat jenderekin topo egiten dugu. Sarri, denborak eta espazioak eramaten du urrin bidelaguna. Halere, esaldi, jestu, ahotz edo ekintza baten oroitza-penek gerturatzen gaituzte. Nik, atzera begiratu ezker, bere itxura tentea, kaligrafia eskolako H barrokkoa eta egurrezko erregela ditut erretinan. Tamaina handiko erregela, ikasbidean okertzen zirenak bideratzeko erabiltzen zuena (Egun, tratu txarrak akusazioa mingain puntan gordeta botatzeko prestu izaten dute zenbaitzuk; guk geuk, bere ikasleok berriz, positiboan gogoratzen dugu).

Herritarrak ez daude oso jakinaren gainean aurten betetzen dituela Aranzadi Ikastolak 25 urte sortu zenetik. Garai xamurrean laga du bizitza heziketa argiko maistrak; gizakumearen jakituriaz gain, izaera zabaltzen saiatu zen eskoladuna.

**Ainhoa ALTUNA**



## Musika dela eta

**G**ure herri honetan ere, bada orain dela urte batzuk xume eta txiki zena eta kontsumitzaileen elkarte bezala sortu zen kooperatiba bat. Asteaz zehar, behin gutxienez, gure herrikora edo, bestela, Arrasatera joan beharrean aurkitzen naiz nire "kontsumo behar aseezine" irteera bat ematera. Establezimendu handi horietako batean sartzean nire izaera herrikoa iraultzen da eta, bapatean, sorginkeria balitz bezala transportatuta sentitzen naiz urrutira. Karroa hartu eta hor noa pausoa bertoko giro musikari egokitu nahirik.

Baina aitortu behar badut zaila egiten zait, izan ere girotzeko asmoz jartzen diguten musika (flamenkoa, sevillanaka, rumbak eta oro har, musika espainola) hain arrotza suertatzen zait ze nire barruak girotu beharrean irakin egiten baitu. Ez ote dago gure herri honetan musika egokiagorik? Dena marketina ote da? Behin edo behin, edo gehiagotan, horrelako musika ipintzea ez dago gaizki, baina, beti...

Agian ni joaten naizen bakoitzean horrela tokatzen zaidalako izango da.

Frankismo garaian eredu musikala jakin batzuk ezarri nahi izan zizkiguten. Ez digute zerbait antzekoa egiten holako lekuetan "derrigorrez" behartzen gaituztenean hemendik urruti planifikatutako musika entzutera? Batzuk esango didate nire aukeran dagoela horrelako lekuetara joatea edo ez. Agian, bai, baina Euskal Herrian jaio, hazi, hedatu eta handitu den "negozio" horrek begirune handiagoga beharko luke bertakoentzat.

**Xabier LARRAÑAGA**

**LAN BILA**  
EMPRESA DE TRABAJO TEMPORAL, S.L.

**Lan Bila, ETek  
premiatzkoak ditu:**

**30 Montadore-Ajustadore  
(Lehen mailako ofiziala)**

- Arrasateko enpresa nabarmen baten lan egiteko.
- Apirilaren 1etik aurrera.
- 9 hilabetetik urtebeterra.
- Lansari polita.

Interesatuak dei egin 10 07 50 telefonora.



**LIZAR**  
**ALTZARIAK**

Dr Fleming, 5 ☎ 76 16 53

**MUJIKA**

**Jantzidenda**

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



**ARGAZKI  
ERAKUSKETA**

Juan Antonio  
Unzurrunzaga

**NAIKARI**

Taberna

Masterreka, 20 ☎ 76 57 71

■ **Elurretara ikasbidaia**

**Aranzadi Ikastolako 8. mailako ikasleek Astunera ikasbidaia** egin berri dute. Urtarrilaren 28tik otsailaren 2ra bitartean Pirineotan izan dira Ikastolatik joandako 82 ikasleak eta, beraiek esan digutenez, primeran pasa dute, nahiz eta gauetan ezin lorik egin eta goizero esnatu ezinda ibili direla aitortu. Eguraldia ere

primerakoa tokatu zaie eta beraz ezin gehiago eskatu. Bueno, beharbada, elurretan ikasitakoa astebukaeran hasiko diren Sierra Nevadako mundialetan frogatzea nahiko lukete...



Aranzadi Ikastolako ikasle talde bat (guztira 82 joan ziren) Astunen izan zuten etxearen aurrean.



■ **Indurainen mailotarekin**

**Euskadiko 6 orduak** ikustera joan eta mendiko bizikleta bat eta Indurainen mailotarekin bueltatu ziren **Onintza Arrieta** bergararra eta **Mikel García** bere laguna. Euskadiko Txirrindulari Federazioak antolatutako zozketan sari bikain hori suertatu zitzaienten eta Indurainek berak dedikatu zien iazko Tourrean irabazitako mailot horia. Pena bakarra Indurainekin batera argazki bat ezin ateratzea izan zen, ez baitzuten kamararik alboan. 1996eko Tourreko mailotarekin beharbada...

 **DEBA GARAIA**  
INMUEBLE ETA FINANNTZA AGENTZIA  
Arrasate / Bergara / Elgoibar  
T. Aranzadi, 2 behea ☎ 76 21 80-76 06 37

**Sugoi**  
ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...  
Irizar pasealekua, 2 behea  
☎ 76 59 54 BERGARA

**Deco-Textil**  
**ZANGITU**  
Etixerako lenteria  
Alfonbra nazionalak eta ekialdekoak  
Bisiloak, tapizak, etab.  
Herri lagunak 3 eta 5 ☎ 76 08 69




NORA PALMITANO

■ **Santa Ageda bezperan kantuan**

Igandean, **Santa Ageda bezperan**, herriko hainbat talde kalera irten zen herriko kaleak euren kantuekin alaitzeko. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, **Aranzadi Ikastola, Jardun Elkartea** eta **Beti-Alai** abesbatzeko kideak dotore-dotore kantuan aritu ziren. Jubilatuen abesbatza, berriz, astelehen goizean kaleratu zen. Udaletxe aurrean alkateari kantu batzuk eskani ondoren, jubilatua kalez kale ibili ziren eguerdi partean kalean zebiltzan herritarren gozamenerako. Goiko argazkian, Jarduneko lagunak igandean eta behekoan Jubilatuetako abesbatza Barrenkalen. Espero dezagun egun hauetako euriak Santa Agedako kantuen ondorio ez izatea....



**Zertan dihardute ba?**



**Pedro Luis Ormazabal**

argazkilari bergarraren erakusketa ikusgai egongo da otsailaren 29ra arte Elgoibarko Kultur Etxean, astelehenetik larunbatera 6etatik 9etara. Ormazabalek 1973. urtetik profesionalki lan egiten du eta bere lehen erakusketa 1987an egin zuen. Orduetik hona Euskadin eta Estatu Batuetan 12 erakusketa gehiago egin ditu. Azken urteotan, bere lanetan, teknika berezi bat erabili omen du, fotografia eta pintura artistikoaren bitarteko lanak lortzen dituelarik. Gaur egun bere Arrasateko estudioan lanean ari da Pedro Luis.

**iletxo**

ileapaindegi mistoa

**BEGOÑA ARZELUS**

Fleming Doktorea, 7 BERGARA

☎ 76 53 15

**BEHEKO TABERNA**

**Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak**

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

**IKUSBI**


**ALKANDORAK, JERTSEAK, BAKEROAK ETA OSAGARRIAK**

Irala, 5 ☎ 76 53 09

# Jabier Roige

**Jabi, Jabier, Roige... kiroldegiko ateak zabaldu eta itxi, jendeari kobratu beharrekoa kobratu eta beste lantxo batzuez gain kiroldegiko tabernako zerbitzari da.**

- Noiztik kiroldegian?
- Orain dela 7 urtetik.
- Ordu asko pasatzen dituzu?
- Asteazkenean zehar 12etatik gaueko 11etara, asteburuetan gehiago.
- Jende gehien noiz ibiltzen da?
- Zapatu eta domeketan, futbito, eskubaloia, saskibaloia partiduetan.
- Kirol ikuslea ala egilea?
- Telebistako ikuslea, kiroldegian ez dut aukerarik.
- Zer da gehien gustatzen zaizuna?
- Tenisa, eskubaloia...
- Zeintzuk dira kirolaririk zintzoenak?
- Futbito txapelketakoak.
- Testik egin duzu sekula?
- Ez, tontokeria iruditzen zaizkit.
- Idazle izango zinateke?
- Ez, orain berandutxo izango da, baina matematikoa izan nahi nuen.
- Alkohol usaina gustatzen zaizu?
- Tabernan egoteko gustatu egin behar.



*“Futbitoko kirolariak dira zintzoenak. Ez naiz basotxo batean itotzen; egin dizkidaten gauza txarrak ez zaizkit ahazten. Sagardotegietara bizpahiru aldiz joan naiz eta beherapenetan txamarra bat erosi dut”*

- Edariz inguratuta egarririk izaten duzu?
- Kafearen ostean whiskya edaten dut, besterik ez.
- Gustoko edaria?
- Whiskya.
- Sagardotegietara joaten zara?
- 2 edo hiru aldiz izan naiz, giroagatik gustatzen zaizkit, ez jaten denagatik.
- Basotxo batean itotzen zara?
- Ez, nerbioak kontrolatzen ditut.
- Noren deia jasotzea gustatuko litzaizuke?
- Emaztearena.
- Emakumearengan zertan fijatzen zara?
- Begietan.
- Transatlantiko batean bidaiatuko zenuke?
- Ez, oso txiki egingo litzaidake.
- Abentura batera nor gonbidatuko zenuke?
- Inor ez, abentura niretzako bakarrik izango litzateke.
- Buru ona duzu?
- Bai, partiduen emaitzez, telefono zenbakiez ondo akordatzeko naiz.
- Zer da sekula ahazten ez zaizuna?
- Egin dizkidaten gauza txarrak.
- Zenbat sinadura dituzu?
- Azken hamar bat urteetan berdina dut.
- Eskekoari zerbait ematen diozu?
- Hemen beti atea zabalik egoten denez inori ez diogu ematen, bestela denei eman behar zaie.

## IBARGUREN PENTSUAK

**Biona pentsuen biltegia  
Bioter produktoak eta haziak**

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79 BERGARA

## ARGI PLASTIC

PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...  
Leihoak, ateak, manparak...

**Eska ezazu aurrekontua  
konpromezu barik**



Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA  
Fabrika: Zigarrola 1, 8. pabiloia ARRASATE  
Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

## Masterreka 24

**Nepal, India eta Hego  
Amerikako jantziak**

Masterreka, 24 BERGARA

## LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

**ETXEBIZITZA**

**Pisua** salgai Mugertza ka-  
lean. ☎ 76 13 62.

**Pisua** alokatuko genuke  
Bergaran. ☎ 76 25 31  
(Alex) edo 76 13 64 (Aitor).

**Pisua** alokatzen da An-  
tzuolan. ☎ 76 64 65 (Gari).

**Pisua** salgai Barrenkalen.  
Berriztuta. ☎ 78 70 30.

**Pisua** salgai Koldo Eleizal-  
de 26an. ☎ 76 44 84.

**Pisua** salgai Burdiñaten.  
70 m2. ☎ 76 38 06.

**Pisua** salgai K. Eleizalden.  
Garajearekin. ☎ 76 45 16.

**Gela** bat hartuko nuke alo-  
kairuan. ☎ 76 57 70 (Enri).

**Lokala** alokairuan Koldo  
Eleizalden. ☎ 76 37 69.

**Garajea** (bi plaza) salgai  
Aranerrekan. ☎ 76 06 96.

**Pisua** salgai K. Eleizalden  
85 m2. ☎ 76 31 57 (gauze).

**Pisu** bat alokatzen da An-  
tzuolan. ☎ 76 21 06.

**Garaje** salgai Kruz Gallas-  
tegin. ☎ 76 27 39.

**Garajea** salgai Bolun (2  
plaza). ☎ 76 54 11.

**Pisua** salgai Aranerrekan.  
☎ 76 00 39/79 27 68.

**DENETARIK**

**Txakurrendako** kase-  
ta txikia salgai. ☎ 76 09 12.

Poltsikoko **Casio telebis-  
ta** salgai. ☎ 76 56 13.

**Urrezko pultsera** bat  
galdu nuen Gabonetan San  
Pedro inguruan.  
☎ 78 03 48.

**Hi-Fi** kate txiki bateko bi  
bafle salgai. ☎ 76 52 31.

**Suzuki** GSx 600F motorra  
salgai. ☎ 76 20 26 (gauze).

**486 Compaq** ordenado-  
rea salgai. 200.000 peze-  
ta. ☎ 76 00 91 (Javier)

GAC Kanowey **motor** bat  
saltzen dut. 49,9 cc. Ego-  
era onean eta prezio inte-  
resgarria. ☎ 78 70 98.

**Renault 4** F6 kotxea sal-  
gai. ☎ 76 22 11.

Bigarren eskuko **karabina**  
erosiko nuke. ☎ 76 24 31.

**Bi txakurkuma** oparitzen  
dira. ☎ 76 26 82 (gauze).

**Musika** bateria salgai. la  
berria. 55.000. ☎ 76 08 58.

**Bizikletan** aritzeko rodilloa  
erosiko nuke. ☎ 76 18 78.

**Josteko makina** salgai.  
Egoera eta prezio onean.  
☎ 76 48 47 (Loli).

Estilo errustikoko **logela**  
salgai. ☎ 76 52 31.

"Imar" karro-denda salgai.  
☎ 76 58 62 (gauze).

**Opel Corsa** (SS-U) kotxea  
salgai. ☎ 76 46 54.

**Comodore ordenagai-  
lua** salgai. 50.000 pezeta.  
☎ 76 56 13 (Iker).

**LANA**

**Aleman** klaseak ematen  
dira. ☎ 76 12 77 (Maite).

**Ingeles** klaseak ematen  
dira. ☎ 76 40 89 (Gemma).

**OHO** eta ingeles klaseak.  
☎ 76 17 18 (Jesus).

**Ordenadorez** lanak pasa-  
tzen ditut. ☎ 76 27 59 (Inma).

**Ingeles** klaseak ematen  
dira. ☎ 76 31 36.

**Haurrak** zainduko  
nituzke. ☎ 76 18 75.

**Matematika** klaseak.  
☎ 76 06 50.

**Etxeko** lanak egingo ni-  
tuzke. ☎ 76 52 89

**Etxeko lanak** egin eta  
haurrak zainduko nituzke.  
☎ 76 08 82 (Isabel).

**Ingeles Filologia** duen  
neska batek lan egingo  
luke. ☎ 76 40 63 (Manoli).

**Cambridgeko** titulua du-  
en publizitate lizentziatuak  
ingeles klaseak emango li-  
tuzke. ☎ 76 06 56 (Irene).

**Aleman** diplomatuak ar-  
ratsaldez klase partiku-  
larrak emango lituzke.  
☎ 76 04 93 (Idoia).

**Euskara** eta gaztelerako  
itzultzailea behar da.  
☎ 77 04 98.

**Gutxitu** psikokoak, hau-  
rrak edo zaharrak zaintzen  
ditut. ☎ 76 48 65 (Paki).

**MAHER**

Biltegiak L.E.

Oihal etxea

Bidekurutzeta, 29  
☎ 76 22 90 - 76 26 75

Barrenkale, 31

**Gaspar**JATETXEA, TXOKOLATEGIA,  
SELF-SERVICE-A

Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

**ARDATZA***Brikolaketa*

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
  - Apalak
  - Kajoiak



☎ 76 20 61

# BONOFOTOA



M. A. ELKORBEREZIBAR

## Ana Maria Bea



**Ana Maria Beak** jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, jasotako txartelen artetik berea atera delako. Argazkian agertzen zen baserriaren izena galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **Gaztelu Suso baserria** zen. **Ana Maria**k zuzen jarri du erantzuna eta, beraz, aste honetako 10.000 pezetak berari eman dizkiogu. Zorionak!!

**Non topa ditzakegu Iturriberri izeneko iturria (ezkerrean) eta kalean dagoen eskumako argazkiko bestea?**

Izena: \_\_\_\_\_ Abizena: \_\_\_\_\_ Tfnoa: \_\_\_\_\_

Saria  
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta  
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA  
Errotalde Jauregia Bergara



## 1. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. ERROTAGAIN	25	11	37	20
2. MADURA INDUSTRIAS GOL	22	11	38	18
3. BAR CANALEJAS	22	11	29	13
4. MONGATXURRA	21	11	41	18
5. OGIZUN	20	11	38	32
6. KABIA	17	11	29	30
7. ORTZI	16	11	24	27
8. BERGATRANS	15	11	26	18
9. BILDURBAREK OPEL/LAM	10	11	23	27
10. ARLOTEAK	9	11	23	32
11. OZAETA	7	11	28	35
12. UFALA	3	11	23	47

## 2. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. JAUJA OH ZEREZOS	34	12	85	27
2. A ZE FLAXA	28	12	41	29
3. PAGOMENDI	23	12	56	37
4. HARTU ZAMAK	23	12	45	30
5. ETXAGI	16	12	57	44
6. NAIKARI HOOLIGANS	16	12	36	51
7. UVE BIKOITZA	15	12	46	34
8. AUTOBEREZI	12	12	42	49
9. KAYAK OS JARDINEIROS	12	12	55	40
10. HALTZARI	12	12	30	48
11. ERI	10	12	34	43
12. INDARGORRI	6	12	18	30

## 3. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. KIROLZALEAK	31	12	71	32
2. SOROPOTROAK	30	12	68	35
3. LA JUVE	22	12	43	41
4. NEKROFILIKOS	21	12	48	34
5. EZINLEIKE	18	12	56	36
6. MOSKIS	17	12	31	48
7. AMOZKIBAR	17	12	24	18
8. CONSTRUCCIONES BERGARA	16	12	40	38
9. EH BITERRAK	14	12	21	35
10. SHAKTALE	8	12	25	47
11. ARI ARI	6	12	31	63
12. IGANDEKOAK	4	12	28	42

## 4. MAILA

TALDEA	P	J	G.A.	G.K.
1. FAC	28	11	60	24
2. GUADALEST	23	11	59	19
3. PJS	22	11	52	20
4. TXIPIRON	22	11	40	22
5. PATXARAN TEAM	20	11	39	24
6. OSINTXU	17	11	47	27
7. PATA NEGRA	13	11	45	58
8. MATXAKATEGI	11	11	44	51
9. ALDOKA MALDOKA	10	11	37	35
10. LABEGARAIETA	6	11	20	53
11. XURRUPAK	0	11	17	67

## TALDEAK



**Madura Industrias Gol** taldea Gotzon Odriozola, Francisco Osuna, Roberto Maiztegi, Miguel Angel Cencual, Aitor Eraña, Iñigo Placencia, Juan Luis Vila, Oscar Azkona, Juan Carlos Alonso, Carlos Decos, Ignacio Arruti eta Juan Manuel Ruizek osatzen dute. Madurakoek 10 urte daramatzate txapelketan jokatzeko eta duela bi urte txapelkunak izan ziren. Horretaz gain, bi aldiz txapelketaren txapelkun ordeak izan dira. Halere, adierazi digutenez, "iaz baino makalago ari gara, baina zerbait egiteko esperantzarik ez dugu galdu".

## PARTIDUAK

### LARUNBATEAN BARRUAN

09:00: Xurruapak-Osintxu • Antolaketa Batz.  
16:00: Ogizun-Ozaeta • Bildurbarek  
17:00: Bildurbarek-Mongatxurra • Ogizun

### LARUNBATEAN KANPOAN

16:00: Matxakategi-Pata Negra • Patxaran T.  
17:00: FAC-Patxaran Team • Pata Negra

### IGANDEAN BARRUAN

09:00: Txipiron-Labegaraieta • Indargorri  
10:00: Indargorri-Autoberezi • Labegaraieta  
11:00: Haltzari-Pagomendi • Autoberezi  
12:00: Arloreak-Kabia • Haltzari  
13:00: Jauja OH Zerezos-Etxagi • Kabia  
16:00: Ortz-Bar Canalejas • Madura  
17:00: Madura Industrias Gol-Errotagain • Ortz  
18:00: Naikari Hool.-Kayak OJ • Errotagain  
19:00: A Ze Flaxa-Uve Bikoitza • Naikari H.  
20:00: Hartu Zamak-Eri • Uve Bikoitza

### IGANDEAN KANPOAN

09:00: Iganekoak-Nekrofilikos • Shaktale  
10:00: Ari Ari-Shaktale • Nekrofilikos  
11:00: Kirolzaleak-Amozkibar • Ari Ari  
12:00: La Juve-Moskis • Amozkibar  
13:00: Ezinleike-C. Bergara • La Juve  
16:00: Guadalest-Aldoka M. • Soropotroak  
17:00: Soropotroak-EH Biterrak • Guadalest

## EMAITZAK

### 1. MAILA

BILDURBAREK OPEL/LAM-ARLOTEAK ..... 2 - 2  
ERROTAGAIN-KABIA ..... 4 - 1

### 2. MAILA

HARTU ZAMAK-AUTOBEREZI ..... 3 - 1  
NAIKARI HOOLIGANS-ETXAGI ..... 6 - 4  
HARTU ZAMAK-KAYAK OS JARDINEIROS ..... 5 - 2  
ERI-UVE BIKOITZA ..... 2 - 1  
HALTZARI-JAUJA OH ZEREZOS ..... 1 - 7  
INDARGORRI-PAGOMENDI ..... 0 - 2

### 3. MAILA

IGANDEKOAK-EZINLEIKE ..... 4 - 9  
MOSKIS-KIROLZALEAK ..... 3 - 12  
CONSTRUCCIONES BERGARA-SOROPOTROAK ..... 3 - 8  
ARI ARI-LA JUVE ..... 3 - 5  
SHAKTALE-NEKROFILIKOS ..... 2 - 6

### 4. MAILA

FAC-PATA NEGRA ..... 12 - 4  
XURRUPAK-ALDOKA MALDOKA ..... 1 - 3  
MATXAKATEGI-TXIPIRON ..... 3 - 5  
OSINTXU-PATXARAN TEAM ..... 2 - 3  
GUADALEST-PJS ..... 3 - 2

## TALDEAK



**Ozaeta** taldea Ibon Agirrebeña, Cesar Miota, Alex Muela, Mikel Azkarate, Iban Agirrezabal, Xabier López, Juan Carlos Poza, Josu Zeziaga, Xabier Zabaleta eta Iñigo Alkortak osatzen dute. Talde honek 3. urtea du txapelketan eta hasieran 2. mailan ibili ondoren aurtun lehen mailan ari dira. Saikapenari begiratu, ez dabilta batere ondo, baina ez dute itxaropenak galtzen. "Gure helburua lehen mailan jarraitzen da eta Kopa txapelketarako indarrak gordetzen ari gara, helburua irabaztea baita" esan digute.

## T XINPARTAK

### Nesken futbito txapelketa

Honako emaitza hauek izan ziren aurreko astean jokaturako partiduetan: Potzu eta Zapaburuk 9 eta 0 irabazi zion Guk taldeari; Almondiga taldea, berriz, 6 eta 0 nagusitu zitzaion Push Team taldeari eta Blue Star eta Berdin du taldeen arteko partidua banako berdinketaz amaitu zen.

### Axen Garitanok larunbatean amaituko du Pirena lasterketa

Larunbat honetan amaituko du La Molinan (Katalunia) Axen Garitanok Pirena 96a. Txakur leren lasterketa urtarrilaren 27an hasi zen Iratin eta osteguneko saikapenari begiratu 43 partehartzaitatik 20. postuan zegoen bergararra.

### Eskubaloit talde nagusiak partidu garrantzitsua du zapatuan


Bihar arratsaldeko 6,30etatik aurrera BKEko 2. Nazional mailako eskubaloit taldeak partidu garrantzitsua jokatuko du Portugaleteren aurka. Bergararrak azken aurreko postuan daude eta mailari eutsi nahi badiote derrigorrezkoa dute irabaztea. Zaletuen laguntza eskatu du BKEko Eskubaloit sailak.

# Tolosari azken omenaldia eskaini zitzaion Bergaran

## Joan zen ostiralean

Begarako Udal pilotalekuan omenaldi beroa eskeini zion Bergarako herriak Josean Tolosa pilotari amezketarrari. Udal pilotalekuko harmailak ia bete egin ziren eta Tolosak hainbat opari jaso zituen. Omenaldian zehar dantzariak eta txistulariak izan genituen ohorezko aureskua eginenez eta BKEko pelotariak ere ohorezko pasiloa egin zioten. Tolosak frontoira joandako guztiei eskerrak eman zizkien, eta Bergarakoa azkenengo omenaldia izango dela ziurtatu zuen. *"Begararekin beti izan ditut harremanak, Arrasaten ikasten nengonenean bona etortzen bainintzen entrenatzera eta hemengo pilotazaleek beti ondo tratatu izan nauten"* adierazi zigun.

Omenaldia borobiltzeko, Tolosak Haritz Berrando antzuolarrarekin batera Apeztegia eta Go-



Herritar ugari hurbildu zen Udal Pilotalekura Tolosa omentzera.

ñiren aurka jokatu zuen azkenengo partiduan, eta 22-17 galdu arren, oraindik sasoi onean dagoela erakutsi zuen.

## BKEkoak Udal pilotalekuan

Bestalde, joan zen astelehenean Victoriano Gallastegi alkateak bilera izan zuen BKEko ordezkariekin eta Gipuzkoako pilota federazioko ardu-

radunekin, BKEko pilota sailak Udal pilotalekuan entrenatzeko dituen arazoak konpontzekotan. Bilerak emaitza onak eman ditu herriko pilotarientzat, aste honetan bertan hasi baitira entrenatzen Bergarako frontoian.

Erabakia behin-behinekora den arren, Enpresak orduko 1.500 pza kobratuko die BKEko pilotariei frontoian entrenatzeagatik.



Herriko igerilaririk onenaren saria jaso berri du.

## Eneritz Muguruza 8. Espainiako txapelketan

Eneritz Muguruza igerilariak 8. postua lortu zuen joan zen asteburuan Lugoko Xove herrian jokatutako Espainiako txapelketan. Muguruzak 100 metro krol lasterketan hartu zuen parte infantil mailan eta ia segundu baten hobetu zuen bere denborarik onena. Leire Zeziagak, entrenatzaileak, adierazi digunez, Muguruzak egindako denbora oso ona izan da, *"lasterketa basi baino lehen oso urduri zegoelako"*. Orain Uudaberrira arte, atsedena hartuko du 13 urteko igerilari gazteak.



## KARTELDEGIA

## FUTBOLA

◆ **Bergara-Hondarribia**

Preferente maila.  
Igandea, 16.15. Agorrosin.

◆ **Bergara-UDA**

Ohorezko mailako jubenilak.  
Larunbata, 17.15. Ipintza.

◆ **Bergara-Almen**

Lehen mailako kadeteak.  
Igandea, 11.00. Ipintza.

◆ **Bergara-Elgoibar**

Lehen mailako infantilak.  
Igandea, 10.00. Ipintza.

◆ **Bergara-Hondarribia**

Emakumezkoak.  
Larunbata, 15.30. Ipintza.

## NESKEN FUTBITOA

◆ **Guk-Push Team**

Igandea, 16.00.  
Miguel Altuna Institutua.  
Kantxa nagusia.

◆ **Almondigak-Blue Star**

Igandea, 17.00.  
Miguel Altuna Institutua.  
Kantxa nagusia.

◆ **Berdin du-Potzu T.Z.**

Igandea, 16.00.  
Miguel Altuna Institutua.  
Bigarren kantxa.

## ESKUBALOIA

◆ **Bergara-Portugaleta**

Senior mutilak (2. nazionala).  
Larunbata, 18.30.  
Labegarieta kiroldegia.

## SASKIBALOIA

◆ **Bergara-Gros Loyola**

Junior neskek.  
Larunbata, 12.15.  
Labegarieta kiroldegia

◆ **Bergara-Almen**

Kadete neskek.  
Larunbata, 12.15.  
Labegarieta kiroldegia.

# Uxue Lazkano

## Atletismo lasterketetan bikain

**Uxue Lazkanok joan zen igandean 5. postua lortu zuen Anoetan jokatutako Euskadiko atletismo txapelketako 60 metroko lasterketan eta Gipuzkoakoan urrezko domina, junior mailan. Horretaz gain, bere markarik onena egin zuen, 8" 27 ehuneneko, eta Arrasateko errekorra ere bai, Lazkano Arrasateko taldean baitabil.**

- **Zer moduz joan zen igandeko proba?**

- Hasieran ez nuen pentsatzen ezer egitea, gogoarekin joan nintzen arren. Final erdietan finalerako gutxieneko marka lortu nuen eta sailkapen orokorrean 5. gelditu arren, Gipuzkoako lehenengo izan nintzen.

- **Proba horretan aritu zinen bakarrik?**

- 200 m korritzeko asmoa nuen, urtero daukat asmo hori, baina behin ere ez dut egiten. Aire libreko probetan 100 mko lasterketetan aritzen naiz.

- **Zenbat urte atletismoan?**

- 8 urte daramatzat atletismoan, ikastolan hasi nintzen atletismoa egiten eta entrenatzailea Arrasatekoa zenez, hara joateko esan zidan eta ordutik han nabil.

- **Distantzia luzeagoetan aritzeko prest?**

- Ez dut uste aguanta-tuko nukeenik.

- **Ze helburu dituzu aurtengo denboraldirako?**

- Orain jarraituko dut entrenatzen eta, gero, ai-

re libreko txapelketetarako gutxieneko marka lortzen saiatuko naiz. Hor, 100 metroak dira distantzia minimoa eta udaberri aldera sailkapen probak izaten dira.

- **Bergarakoa izanik Arrasateko markarik onena?**

- Joan zen urtean ere hobetu egin nuen eta etorriko dira beste batzuk kenduko didatenak.


- **Espero zenuen emaitza hori lortzea?**

- Ez nuen espero, halere, banekien zorte pixka batekin zerbait egin

nezakeela. Hor irteerak zerikusi handia du, ondo irtetzen bazara zerbait egin dezakezu. Hor dago Leire Olabarria, oso ona izan arren irteeran bi nulo egin zituen eta kalera-tu egin zuten.

- **Marka hobetzeko zer?**

- Ordu gehiago sartu beharko nituzke, astean zehar ostiraletan 2 ordu t'erdi bakarrik entrenatzen dut eta ordu gehiago sartu beharko nituzke. Halere futboleko jokatzeko dut eta hor ere entrenatzen dugu.



60 metroko lasterketan Arrasateko errekorra du jubenil mailan.

**"Distantzia motzetan ondo irtetzea oso garrantzitsua da"**



## *Dominikotako tuna, 1963*

**B**ergarako Seminarioan tuna izaten omen zen aspaldi. Goiko argazkia 1963 urtekoa da eta bertan orduko tunako kideak ikus ditzakezue, dotore-dotore jantzita. Bost bat urte-tan ibili omen ziren Euskal Herrian zehar, herriz herri, *tuneroen* ohizko abestiak eskeintzen, "Clavelitos" eta horrelakoak.

Ez ziren disko bat grabatzera heldu, baina itxuraz arrakasta handia lortu zuten inguruko herrietan. Hauek dira argazkian agertzen dinenen izenak, ezkerretik eskumara:

**Zutik:** J. González, Jose Luis Calvo, Raul Calvo, Joaquin Ostolaza, Miguel Mari Lete, Jon Marcó, S. Yanci, Benjamin Lazkano, Arkotxa ondarrutarra, Tomas Garitano, Guillermo Navarro, Jesus Nespral eta Jose Ramon Murgoitio.

**Makurtuta:** Marino González, ezezaguna, Molinero, Javi Arteaga (mutikoa), Alberto Iglesias dominikoa, Imaz eta ezezaguna.

*Argazkia: Marino González*



**umelaga**

JATETXEA

**IGANDETAN ZABALIK!!**

San Antonio,  
5 BERGARA  
☎ 76 20 21

**ZUBIETA**  
*elektragarintza*

MOTORREN BOBINAKETA  
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK

Kruz Gallastegi, 2 behea  
☎ 76 23 48



# Gaur bizitza zuk gidatzen duzu.

Mégane eta Mégane Cupé berriak, plazerra eta segurtasuna batzen dituzten modeloak.



**MECAk otsailaren 14ean aurkeztuko du  
arratsaldeko 7etatik aurrera.  
Zatoz RENAULTen azkenaz goatzera!**



# MECA



# APRESKI BOTAK

Bat 2.000 pta.  
Bi 3.000 pta.

# TXANDALAK

Bat 6.000 pta.  
Bi 11.000 pta.



# KAZADORAK

Bat 5.000 pta.  
Bi 9.000 pta.



# SUDADERAK

Bat 3.000 pta.  
Bi 5.000 pta.



# ESKIATZEKO PRAKAK

5.995 pta.



# KAZADORA TEKNIKOAK

Bat 10.000 pta.  
Bi 18.000 pta.

